

Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización

URA

**Uraren Euskal Agentzia /
Agencia Vasca del Agua**

2016





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	8
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	9
III.1 KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK.....	9
III.2 LANGILERIA.....	9
III.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA.....	9
III.4 BESTE ALDERDI BATZUK.....	10
IV. URTEKO KONTUAK.....	11
ERANSKINAK.....	13
A.1 Araudi ezargarria.....	13
A.2 Ibilgetu ukiezina eta materiala.....	14
A.3 Jasotako diru-laguntzak eta ustiapeneko beste sarrera batzuk.....	15
A.4 Negozio zifraren zenbateko garbia.....	16
A.5 Langileria.....	17
A.6 Hornidurak.....	18
A.7 Bestelako ustiapen gastuak.....	18
A.8 Kontratuen analisisa.....	19
A.9 2016-ko Aurrekontuaren likidazioa.....	21
ALEGAZIOAK.....	23



ABREVIATURAS	29
I. INTRODUCCIÓN.....	31
II. OPINIÓN.....	32
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD.....	32
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES	32
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	34
III.1 CONTABILIDAD Y PRESUPUESTOS.....	34
III.2 PERSONAL.....	34
III.3 CONTRATACIÓN DE BIENES Y SERVICIOS.....	34
III.4 OTROS ASPECTOS.....	35
IV. CUENTAS ANUALES	36
ANEXOS	39
A.1 Normativa aplicable.....	39
A.2 Inmovilizado intangible y material	40
A.3 Subvenciones recibidas y otros ingresos de explotación	41
A.4 Importe neto de la cifra de negocios	42
A.5 Personal	43
A.6 Aprovisionamientos.....	44
A.7 Otros gastos de explotación	44
A.8 Análisis de contratos	45
A.9 Liquidación presupuesto 2016.....	47
ALEGACIONES	49



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala.
BBUP	Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
AFA	Arabako Foru Aldundia.
233/2007 D	233/2007 Dekretua, abenduaren 18koa, Uraren Euskal Agentziak jardueri hasiera ematea eta EAEn Administrazioaren baliabide pertsonal zein gauzazkoak erakundeari atxikitzeko baldintzak arautzen dituen.
EJIE	Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte, SA.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
1/2006 Legea	1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urei buruzkoa.
30/1992 Legea	30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Bateratuaren Araubide Orokorrari buruzkoa.
PNSP	Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua.
APKLEO	1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzeko dena.
TRAGSATEC	Nekazaritzako teknologiak eta zerbitzuak, SA.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
EAEHONALTB	1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak 1/1988 Legean eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onartutako Lanerako Planean ezarritakoari jarraikiz, Uraren Euskal Agentziaren (aurrerantzean, URA) 2016ko ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak fiskalizatu ditu.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: aurrekontu, langileria eta ondasun eta zerbitzu kontratuetan ezargarria den arautegia bete dela egiaztatzea.
- Kontularitzakoak: urteko kontuak ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozela egiaztatzea. URA auditatua izan da; honenbestez, gure lana auditoreen lan paperak berrikustera mugatu da eta hala behar izan denean, egoki iritzitako proba osagarriak egin ditugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efikaziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak “Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.

URA 1/2006 Lege bitartez sortu zen Euskadiko uraren politika gauzatzeko; zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, ingurumen gaitan eskumena duen EJko sailera atxikia, egun Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza saila dena. Egitekoei 2008ko urtarrilaren 1ean ekin zien, 233/2007 Dekretuari jarraikiz. Dekretu honek, gainera, funtzionarioak URARA atxikitzea arautzen du eta Ingurumen eta Lurralde Plangintza Saileko Uren Zuzendaritzako eta lurralde-bulegoetako uren gaitan funtzioak dituzten lan kontratupeko langileen integrazioa.

URA EAeko erakundeen entea da, izaera publikoa duena eta bere helburua, modu deszentralizatuan, eskumeneko dituen jarduerak gauzatzeko da; horiek, nagusiki, zuzenbide pribatuak arautzen ditu; salbuespen dira, ahalmen publikoa erabiltzea eskatzen duten jarduerak, zeinak zuzenbide publikoaren menpe dauden bete-betean. Halaber, 1/2006 Legearen 6.3 artikuluari jarraikiz, zerga gaitan indarreko zuzenbide publikoari meneratzen zaio, aurrekontu, ekonomia-kontrol, ondare eta kontratazio araubideari buruzkoari.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA

1. Gasteizen Abetxukoko zubi zaharra zaharberritzeko aldatutako proiektuko lanak 486.807 euroren zenbatekoan esleitu dira, presa arrazoiak tarteko publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez (SPKLTBren 170.e artikulua); ez da, baina, arrazoi hori justifikatu eta horretarako eskumena duen organoaren dagokion adierazpenik ere ez dago (A.8ko 2. espedientea).
2. 3. hodi-biltzailea egikaritzeko Urumea ibaia Donostiako Martutene auzotik igarotzean uholdeetatik babesteko aldatutako proiektuaren obra osagarriak publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu dira, 467.261 euroren zenbatekoan; ez da justifikatu, baina, hodi-biltzaile horren beharra ezin izan zela alde aurretik aurreikusi eta lan hauek ezin zirela teknikoki edo ekonomikoki hasierako kontratutik bereiz, SPKLTBren 171.b artikulua agintzen duen moduan (3. espedientea A.8an).

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan zehaztu diren ez-betetzeak alde batera, URAk zuzentasunez bete du 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. URAk balantzeko aktiboaren "Ibilgetu materiala" idazpuruan 11,9 milioi euro kontabilizatu zituen 2008ko urtarrilaren 1ean, atxikitako aktiboei emandako balio garbiari dagozkionak 233/2007 Dekretuaren arabera, egoera balantzeko "Ondare garbia" kapituluaren "Funts soziala" kontuan abonatuz. Txosten hau idatzi dugun datan ez dugu hasierako atxikipenean jasotako ondasunen balio-bizitza, izate fisiko, osotasun eta balorazio banakakoaren xehetasunezko azterketa teknikorik eskura izan.
2. "Ibilgetu materialak" 24 milioi euro barne hartzen ditu, EAEko ibai eta erreken ibilgu eta ertzak mantendu, zaindu, berreskuratu, lehengoratu eta ingurumena hobetzeko. Txosten hau jaulki dugun datan ez dugu aktibagarriak diren zenbateko eta kontzeptuak zehaztuko dituen txosten teknikorik eskuratzerik izan, gainerakoa ekitaldi bakoitzeko gastu modura erregistratu behar izan delarik. Gainera, ekitaldi bakoitzeko emaitzei egotzi behar zitzaizkiekeen gastu hauek finantzatzen dituzten Egoera Balantzeko "ondare garbian" erregistraturiko diru-laguntzak.

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, URAren 2016ko ekitaldiko kontu orokorrek alderdi esanguratsu guztietan 2016ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK

- "Abian den ibilgetua" eta "Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak" kontuek 2016ko abenduaren 31n URAk udal batentzat 1,5 milioi euroren zenbatekoan egikaritutako lanak besarkatzen dituzte, ekitaldian gastu eta sarrera modura erregistratu behar ziratekeenak.
- 2016ko abenduaren 31ko etorkizuneko konpromisoek ez dute 20,2 milioi euroren zenbatekoa besarkatzen, esleitutako kontratuei edo beste erakunde batzuekin izenpetutako hitzarmenei dagozkienak.

III.2 LANGILERIA

- Aldi baterako langileen bederatzi kontratazioetatik bostetan ez dago ez aparteko inguruabarrak ez beharizan premiazko eta atzeraezinak zeudela justifikatuko zuen dokumentaziorik (2016ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren urriaren 29ko 48/2015 Legearen xedapen gehigarri hamabosgarrena).
- 2016an URAk txanda-kontratu bat izenpetu du beste dotazio batean ordezkotza-kontratu batekin egiteko berberak betetzen zituen pertsona batekin, eta ordezkapenatarako kontrataturiko bi pertsonak bi lanpostu huts bete dituzte lanpostuak aldi batean betetzeko barne deialdietan esku hartu ostean. Hiru langile hauek EAEko Administrazio Publikoko eta bere erakunde autonomoetako lan-poltsetatik kontratatu ziren, aurretik EJKo Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari eskaria eginez, kontratazioaren inguruabarra eta/edo balioetsitako denbora adieraziaz; honenbestez, hiru izendapen osagarri hauetarako berriz eskaera egin behar zitzaiokeen Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari.

III.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA

- 2016an guztira 7,1 milioi euroan esleitutako 10 kontratazio espediente aztertu ditugu (ikus A.8) eta zera azaleratu da:
 - Gobeoko zubi inguruan sedimentuak kentzeko proiektuaren obra kontratuan (1 zk. espedientea), 228.941 euroan esleitutakoan, proposamenak aurkezteko epea SPKLTBren 159. artikuluan finkatutakoa baino txikiagoa da.
 - Aleko prezioetan guztira 1,2 milioi euroan esleitutako hiru kontratutan (1, 2 eta 3 espedienteak), pleguetan eskatutako eta eraturako bermea esleipen zenbatekoaren

ganean kalkulatu da eta ez lizitazio zenbatekoaren ganean (SPKLTBren 95. artikulua).

- EAEko ibai eta erreken eta itsasertzaren ibilgu eta ertzak mantendu, zaindu, berreskuratu, lehengoratu eta ingurumena hobetzeko mantentze kontratuan (5. espedienteak), 4,7 milioi euroan esleitutakoan, balioetsitako balioak ez du pleguetan aurreikusitako balizko aldaketaren % 10 barne hartzen (SPKLTBren 88. artikulua).
 - Guztira 5,1 euroan esleitutako hiru kontratutan (1, 5 eta 9 zk. espedienteak), esleipen-irizpideen balorazio txostenean emandako puntuazioak –zeinetan balio judizioa egitea eskatzen den- ez dira behar hainbat arrazoitu.
 - 332.062 euroan esleitutako kontratu batean (7 zk. espedienteak) ez dago jasoa kontratuaren formalizazioa BOEn argitaratu denik (SPKLTBren 154.2 artikulua).
 - 228.941 euroan esleitutako kontratu batean (1 zk. espedienteak) ez da lanerako programa onartu. 467.261 euroan esleitutako beste kontratu batean (3 zk. espedienteak) lanerako programa obrei ekin ostean onartu da (APKLEOren 144. artikulua).
- Kontratu txiki modura izapidetutako erosketak aztertzean ikusi da ondotik adierazitakoak publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu behar ziratekeela, haien kopurua aintzat hartuta:

Kontzeptua	Euroak milakotan	
	Hirugarren kop.	Zenbatekoa
Mezularitza zerbitzua	1	36
Erregai hornidura.....	1	58
Hornidura elektrikoa.....	1	35
Bulegoko materiala.....	1	29
GUZTIRA		158

III.4 BESTE ALDERDI BATZUK

- URAk 2,6 milioi euro 30 eguneko gehienezko epea gaudituta ordaindu ditu (hornitzaileei 2016ko ekitaldian egin zaizkien ordainketa guztien ganean % 8,9), merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurkako neurriei buruzko abenduaren 29ko 3/2004 Legearen 4. artikulua agintzen duena.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. URTEKO KONTUAK EGOERAREN BALANTZEA

AKTIBOA	Eransk.	Euroak milakotan	
		2016	2015
AKTIBO EZ KORRONTEA		150.241	134.000
Ibilgetu ukiezina	A.2	1.030	1.164
Ibilgetu materiala	A.2	149.211	132.836
AKTIBO KORRONTEA		13.340	10.097
Merkataritzako zordunak eta kobratz. beste knt. b.		6.504	7.517
Eskudirua eta bestelako aktibo baliokideak		6.836	2.580
AKTIBOA GUZTIRA		163.581	144.097
ONDARE GARBIA		150.138	136.690
Funts propioak		11.654	11.654
Diru-lagunt., dohaintz. eta legatuak	A.3	138.484	125.036
PASIBO KORRONTEA		13.443	7.407
Epe laburreko zuzkidurak		325	-
Zorrak epe laburrera		5.582	3.700
Merkataritz. hartzek. eta ordain. b. knt. batzuk		7.536	3.707
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		163.581	144.097

GALERA-IRABAZIEN KONTUA

	Eransk.	Euroak milakotan	
		2016	2015
Negozio zifraren zenbateko garbia	A.4	3.816	3.625
Hornidurak	A.6	(5.141)	(644)
Bestelako ustiaketa sarrerak	A.3	12.091	11.383
Langileria-gastuak	A.5	(8.689)	(8.037)
Bestelako ustiaketa gastuak	A.7	(6.917)	(6.971)
Ibilgetuaren amortizazioa	A.2	(3.176)	(2.470)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozte eta beste	A.3	8.393	3.116
Gehiegizko hornidurak		(325)	-
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza	A.2	(35)	(2)
Beste emaitza batzuk		(17)	3
USTIAPENAREN EMAITZA		-	3
Finantza gastuak		-	(3)
EMAITZA FINANTZARIOA		-	(3)
EMAITZA ZERGA AURRETIK		-	-
Mozkinen gaineko zerga		-	-
EKITALDIAREN EMAITZA		-	-



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA-ORRIA

	Euroak milakotan	
	2016	2015
1. AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA		
A) Galera eta irabazien kontuaren emaitza	-	-
B) Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak	24.614	27.212
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	24.614	27.212
C) Galera eta irabazien kontura transferentziak	(8.393)	(3.116)
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	(8.393)	(3.116)
Jasotako gehiegizko diru-laguntzak	(2.773)	(45)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	13.448	24.051

	Euroak milakotan			
	Funts		Diru-lag., doh.	
	Soziala	Geldikina	eta leg.	GUZTIRA
2. ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA				
Saldoa 2015eko urtarrilaren 1ean	11.966	(312)	100.985	112.639
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	24.051	24.051
Saldoa 2015eko abenduaren 31n	11.966	(312)	125.036	136.690
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	13.448	13.448
Saldoa 2016ko abenduaren 31n	11.966	(312)	138.484	150.138

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA

	Euroak milakotan	
	2016	2015
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik	-	-
Emaitzari doiketak	(4.857)	(641)
Ibilgetuaren amortizazioa	3.176	2.470
Diru-laguntzen egozketa	(8.393)	(3.116)
Zuzkiduren aldaketa	325	-
Ibilgetuaren baja eta besterenganatzeengatik emaitzak	35	2
Finantza gastuak	-	3
Kapital arruntean aldaketak	2.069	(4.324)
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(2.788)	(4.965)
Inbertsioen ordainketak	(17.570)	(22.792)
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(17.570)	(22.792)
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak	24.614	27.167
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	24.614	27.167
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	4.256	(590)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran	2.580	3.170
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	6.836	2.580



ERANSKINAK

A.1 ARAUDI EZARGARRIA

URA 172006 Legeak arautzen du, ekainaren 23koak, Euskal Herriko Urei buruzkoak, eta bere estatutuek, martxoaren 10eko 25/2015 Dekretu bidez onartutakoak. Gainera, 2016an ezargarria den araudi nagusia honakoa da:

- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duena (EAEHONALTB).
- 2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testuategina onartzen duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testuategina onartu eta Euskal Autonomia Erkidego Sektorre Publikoko Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 9/2015 Legea, abenduaren 23koa, 2016ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzen dituena.
- 14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia-kontrol eta Kontabilitateari buruzkoa.
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektorre Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testuategina onesten duena (SPKLTB).
- 14/1988 Legea, urriaren 28koa, Goi Kargudunen Ordainsariei buruzkoa.
- 130/1999 Dekretua, otsailaren 23koa, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekideen estatutu pertsonala arautzeko dena.
- 2/2015 Legegintzako Errege-Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen Testuategina onesten duena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duena.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituena.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gaiei dagokienez, berariaz aplikagarri zaizkion xedapenek arautzen dute eta horiei aurka egiten ez dietenetan, zuzenbide pribatuak arautzen du, EAEHONALTBren III. Idazpuruaren III. Kapituluaren agindutakoari jarraikiz. Halaber, 1/2006 Legearen 6.3 artikuluari jarraikiz, URA zerga gaitan indarreko zuzenbide

publikoari meneratzen zaio, aurrekontu, ekonomia-kontrol, ondare eta kontratazio araubideari buruzkoari.

Ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez, aginte esleitzailerik ez administrazio publiko izaera du, SPKLTBren arabera. Alabaina, bere estatutuen 20.1 artikuluan jasotzen da euren kontratazioak meneratu beharko dituztela administrazio publiko izaera duten aginte esleitzailerik ezargarria zaien kontratuen legedira, Sektore Publikoko Kontratuen legediaren ondorioetarako.

URAREN lanpostuak horretarako kontraturiko langileek eta EAeko administrazio publikoetako langileek betetzen dituzte, segun eta nolakoa den lanpostu bakoitzari esleitutako egitekoa. Lan-kontratuko langileak kontratatzeari dagokionez, zuzenbide pribatuko erakunde publikoa den aldetik, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetara meneratua dago. Funtzionarioentzat gordetako lanpostuak lehiaketa edo izendapen aske bidez beteko dira eta horietarako aurkezteko aukera izango dute lanpostuen zerrendan lanpostu bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten EAeko administrazio publikoetako funtzionarioek.

A.2 IBILGETU UKIEZINA ETA MATERIALA

Hona hemen 2016ko ekitaldiko ibilgetu ukiezin eta materialean barne hartutako kontuen mugimenduen xehapena:

Kontzeptua	Euroak milakotan								
	2015.12.31n saldoa						2016.12.31n saldoa		
	Kostua	Amortiz. pilat.	Erretiro Altak garb.	Eskual.	Amort. zuzkid.	Kostua	Amortiz. Pilat.	Garbia	
Ibilgetu ukiezina									
Aplikazio informatikoak	2.039	(875)	274	-	-	(408)	2.313	(1.283)	1.030
IBILGETU UKIEZINA GUZTIRA	2.039	(875)	274	-	-	(408)	2.313	(1.283)	1.030
Ibilgetu materiala									
Eraikuntzak.....	985	(178)	-	-	-	-	985	(178)	807
Jabari publikoko ondasunetan inbertsioak...	99.131	(5.835)	-	-	17.630	(2.686)	116.761	(8.521)	108.240
Bestelako instalazio, tresneria eta altzariak..	999	(379)	12	(35)	-	(68)	956	(427)	529
Beste ibilgetu bat	1.060	(878)	120	-	-	(14)	1.180	(892)	288
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	37.931	-	19.046	-	(17.630)	-	39.347	-	39.347
IBILGETU MATERIALA GUZTIRA	140.106	(7.270)	19.178	(35)	-	(2.768)	159.229	(10.018)	149.211



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Abian dagoen ibilgetuaren osaera honakoa da:

Kontzeptua	Euroak milakotan			
	Saldoa 15.12.31n	Altak	Eskuald.	Saldoa 16.12.31n
Gobela ibaia Getxon. Errekaganeko ibai-zatia	15.351	1.730	(17.081)	-
Urumea-Martutenen uholdeetatik babesa	7.502	9.658	-	17.160
Ubideak berroneratu eta hobetzea	5.946	2.321	-	8.267
Nerbioi Ibaizabal ibaiaren bideratzea II. fasea	6.349	1.482	-	7.831
Villabona-Zizurkilen uholdeetatik babestea	1.218	1.259	-	2.477
Gobela ibaia Getxon. Fadura	256	1.523	-	1.779
Informazio hidrologikoa emateko sistema	601	238	-	839
Zadorra ibaitik sedimentuak kentzea	-	352	-	352
Urkarregi errekan berroneratzea, Etxebarria	156	50	-	206
Zallan Kadagua ibaiaren uholdeetatik babestea	144	-	-	144
Asua ibaiaren ezkerrekoa berritzea	78	-	-	78
Laudion Nerbioi ibaia uholdeetatik babesteko proiektua	72	-	-	72
Zarauzko Errotaberri industri eremuan urbanizazio-proiektua	-	-	-	-
Beste kontzeptu batzuk	258	433	(549)	142
ABIAN DAGOEN IBILGETUA	37.931	19.046	(17.630)	39.347

A.3 JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK ETA USTIAPENEN BESTE SARRERA BATZUK

“Beste ustiapen sarrera batzuetan” barne hartzen da:

Kontzeptua	Euroak milakotan	
		Zenbatekoa
EJren ustiakotari diru-laguntzak Aurrekontua 2016		11.220
Garapenerako Nazio Batuen Programari diru-laguntza EJ (ikus A.7)		121
Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren mandatua		750
GUZTIRA		12.091

URAK urtean 750.000 euro jasotzen ditu Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioarekin eta Kantauri eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoekin izenpetutako lankidetzak hitzarmenaren ondorioz; horren indarrez, jabari publiko hidraulikoko gaietan EAEko lurraldeko komunitate arteko arrotan zenbait egiteko agintzen zaizkio, EAEn dagoen jabari publiko hidraulikoaren kudeaketa homogenea bermatzearren, zein arro hidrografikori dagokion alde batera.

Hona hemen 2016an “Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak” idazpuruaren kontu-xehapena:

Erakundea-Kontzeptua	Euroak milakotan				
	Saldoa 15.12.31n	Altak	Emaitzetara egoztea	Diru-lag. soberakina	Saldoa 16.12.31n
EJ-lbilgetuan inbertsioa egiteko diru-laguntza	121.956	18.418	(3.134)	(2.773)	134.467
EJ-Beste ente batzuetan lanak egiteko diru-lag. (ikus A.6).....	-	5.141	(5.141)	-	-
Donostiako Udala-Martutene zeharkatzean					
Urumea ibaia uholdeetatik babestea	456	1.014	-	-	1.470
Euskal Trenbide Sarea-Añorgako errekan lanak					
Errekalde eta Errotaburu artean	2.544	-	(76)	-	2.468
Bst. batzuk.....	80	41	(42)	-	79
GUZTIRA	125.036	24.614	(8.393)	(2.773)	138.484

2016an URAk 2015ean jasotako kapital diru-laguntzen 2,8 milioi euro “Merkataritzako hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk” kontura eskualdatu ditu, itzulgarriak baitira 2015ean finantzatutako inbertsioa gainditzeagatik.

A.4 NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA

2016ko ekitaldiko sarreraren xehapena honakoa da:

Kontzeptua	Euroak milakotan	
	Zenbatekoa	
Uraren kanona	2.528	
Lurretik itsasora hondakin urak isurtzeko kanona	788	
Jabari publikoa okupatzeagatik kanona.....	496	
Isurkinak kontrolatzeko kanona.....	529	
Jabari publikoa okupatzeagatik kanona, errekurso bidez baliogabetuak	(82)	
uraren kanona, aurreko ekitaldietako doiketa.....	(1.076)	
Gainerako kanona, aurreko ekitaldietako doiketa.....	53	
Obra zuzendaritzen tasak	558	
Zigorak	22	
GUZTIRA	3.816	

Kanon honen ekonomia-finantza erregimena arautzen duen azaroaren 4ko 181/2008 Dekretuaren indarrez, URAk 2009ko ekitalditik aurrera kontzeptu honen izeneko diru-sarrerak erregistratzen ditu, zorpetu eta hurrengo ekitaldian kitatzen direnak, balioespenik onena eginda. 2016an baliogabe utzi dira 2009tik 2014 bitarteko ekitaldietako balioespen eta likidazioen arteko aldeak, guztira 1,1 milioi euroren zenbatekoan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.5 LANGILERIA

Honako hauek dira langile gastuak:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	2016	2015
Soldatak.....	6.888	6.369
Gizarte Segurantza.....	1.801	1.668
GUZTIRA	8.689	8.037

2016ko ekitaldiko ordainsari igoera % 1ekoa da 2015eko ekitaldiko diru-sarrerara osoekiko.

2016ko martxoaren 15eko EJren Kontseiluaren erabakia aplikatuta, 2016ko apirileko nominan 119.253 euro ordaindu dira 2012ko abenduako aparteko ordainsariaren % 26,67aren ordainetan, uztailaren 13ko Errege Lege Dekretua aplikatuta kendu zena, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa. 2015eko apirilean % 24,44 ordaindu zen, 2016ko abenduaren 31n gainerako % 48,89 ordaintzeko utziaz, guztira 222.787 euro egingo dituen.

Ekitaldian langileen bariazioa honakoa izan da:

	Euroak milakotan				
KONTZEPTUA	31.12.15	ALTAK	BAJAK	ALDAK.	31.12.16
Goi Zuzendaritza.....	4	1	(1)	-	4
Funtzionarioak	18	-	(1)	(3)	14
Lan kontratuko langile finkoak	19	-	-	1	20
Lan kontratu mugagabeko ez finkoak	16	1	-	-	17
Erretiro partzialag. iraupen jakineko lan kontrat.	7	-	(5)	2	4
Aldi baterakoak	98	20	(12)	-	106
GUZTIRA	162	22	(19)	-	165

2016ko ekitaldian indarrean zegoen Lanpostu zerrenda 2015eko irailaren 23an administrazio-kontseiluak onartutakoa da, URAREN estatutuen arabera; honako lanpostu hauek besarkatzen ditu:

LAN-HARREMAN MOTA	Kopurua
Funtzionarioak	4
Lan-kontratudunak.....	148
GUZTIRA	152

A.6 HORNIDURAK

Idazpuru honen saldoa URAk 2016an beste erakunde batzuentzat kudeatutako lanen egikaritutako zenbatekoari dagokio, horiekin izenpetutako lankidetzak hitzarmenen indarrez. URAk EJren diru-laguntzak jasotzen ditu, egikaritzaren % 100ean (ikus A.3).

2016ko egikaritzaren xehapena honakoa da:

	Euroak milakotan
ERAKUNDEA - KONTZEPTUA	2016
Busturialdeko uren partzuergoa – Busturialdeko saneamendu lanak	3.968
AFA – Oiongo EDAR	566
AFA – Oion inguruan saneamendu eta arazketa proiektua	200
Berriatuako Udala eta BBUP –Berriatua-Ondarroako hodi-biltzailea 2. fasea	108
BBUP – Bilboko portua	78
Beste kontzeptu batzuk	221
HORNIDURAK GUZTIRA	5.141

A.7 BESTELAKO USTIAPEN GASTUAK

Galera eta irabazien kontuaren idazpuruaren xehapena honakoa da:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	2016	2015
Errentamenduak eta kanonak	549	554
Konponketak eta zaintza	119	132
Profesional independenteen zerbitzuak	121	98
Garraioak	43	42
Aseguru sariak	38	37
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	258	215
Hornidurak	68	88
Bestelako zerbitzuak	5.600	5.642
Nazio Batuen Garapenerako Programak emandako diru-laguntzak (ikus A.3)	121	163
BESTELAKO USTIAPEN GASTUAK	6.917	6.971

“Beste zerbitzu batzuetan” azpimarratzekoak dira:

- Sareen kudeaketa, 2 milioi euroren zenbatekoan, honako hauek besarkatzen dituela: ibaien egoera kimiko eta biologikoari segimendua egiteko sareak; hezeguneen egoera ekologikoarenak, lur azpiko urak kontrolatzeko sareak eta giza kontsumorako ur-ekoizpena emandakoak.
- Laguntza tekniko informatikoa, EJIEk 1,4 milioi euroan emandakoa.



A.8 KONTRATUEN ANALISIA

2016ko ekitaldian esleitutako honako kontratu hauek aztertu dira:

Zk.	KONTZEPTUA	PROZED.	Esleipen zenb.(*)	Exek. 2016	Euroak milakotan			
					HUTSAK			
					A	B	C	E
OBRAK								
1.	Gobeo zubi inguruko sedimentuak kentzeko proiektua	Irekia	229	243	A3,4	B1,2	C1	
2.	Abetxukoko zubi zaharra zaharberritzeko proiektu aldatua Vitoria-Gasteizen	PGPN	487	195	A1,4			
3.	Donostian Martutene auzotik igarotzean Urumea ibaiko uholdeen aurkako proiektu aldatuarekiko obra osagarriak Banatua 1. fasea.....	PGPN	467	-	A2,4		C1	
4.	Inturia uharka eraisteko proiektua, 5. fasea: Eraisketak eragindako ur ertzak egonkortu eta berroneratzea	PGPN	167	183				
ZERBITZUAK								
5.	EAEko ibai eta erreken ur ibilguak eta ertzak eta itsas bazterra mantentzea, zaintzea, berreskuratzea eta hobetzea.....	Irekia	4.693	-	A5	B1		
6.	EAEko lur azpiko urak kontrolatzeko sarea mantentzea (16 uztaila-8 uztaila).....	Irekia	426	103				
7.	EAEko ibaien jarraipen biologikoa egiteko sarea 2016-17	Irekia	332	143		B3		
8.	EAEko nekazaritzako jardueratik eratorritako nitratoen kutsadurarekiko gune sentiberen ebaluazioa 2016-17	PGPN	57	14				
HORNIDURAK								
9.	URAREN ibilgailuen parkerako 9 ibilgailuren errentamendu erregimeneko kontratazioa, erosteko aukerarik gabe.....	Irekia	152	7		B1		
10.	Agilent AADuo sugar bidezko atomo-xurgapenezko espektrofotometro bat eta zeeman efektu zuzentzailea duen grafito-ganbera bat erostea.....	PGPN	60	60				
GUZTIRA			7.070	948				

(*) Aleko prezioen kasuan, esleipen aurrekontu gehienekoa adierazten da

Gainera, 2016ko ekitaldian eragina duten ondoko luzapenak aztertu dira:

KONTZEPTUA	PROZED.	Luzapenaren zenb.	Exek. 2016	Euroak milakotan
				AKATSAK
ZERBITZUAK				
EAEko ibai eta erreken ur ibilguak eta ertzak mantentzea, zaintzea,				
	Irekia	2.700	1.919	
		2.193	1.619	
		338	300	
		169	-	
Giza kontsumorako Euskal Herriko barneko arroetako urak				
	Irekia	292	34	
GUZTIRA		2.992	1.953	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	Euroak milakotan	
AKATSAK	EXPEDIENTE KOP.ZENBATEKOA	
ESPEDIENTEA		
A1 Kontratua PGPN bidez esleitu da presa-arrazoiengatik, justifikatu gabe eta organo eskumendunak dagokion adierazpenik batere egin gabe (SPKLTBren 170.e art.).....	1	487
A2 Justifikatu gabe PGPN bidez obra osagarri modura esleitua (SPKLTBren 171.b art.).....	1	467
A3 Proposamenak aurkezteko emandako epea adierazitakoa baino txikiagoa da (SPKLTBren 159. art.).....	1	229
A4 Pleguetan eskatutako eta eratutako bermea esleipen prezioaren gainean kalkulatu, lehia prezioaren gainean beharrean (SPKLTBren 95. art.)	3	1.183
A5 Kontratuan balioetsitako balioak ez du pleguetan barne hartutako balizko aldaketa jasotzen (SPKLTBren 88. art.).....	1	4.693
ESLEIPENA		
B1 Balio judizioari meneratutako irizpideen puntuazioa egoki justifikatu gabe	3	5.074
B2 Ez dago eskaintzen balorazioa jaso duen kontratazio mahaiaren aktarik (SPKLTBren 320. art.).....	1	229
B3 Ez da gauzatu izana argitaratu BOEn (SPKLTBren 154.2 art.).....	1	332
EGIKARITZA		
C1 Ez da Lanerako Programa onartu obrari ekin aurretik (APKLTBren 144. art.).....	2	696



A.9 2016-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA USTIAPENAREN AURREKONTUA

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	Hasier. aurrek.	Aldat. aurrek.	Egungo aurrek.	Gauzat. aurrek.
GASTUAK				
Langileria-gastuak	8.331	418	8.749	8.689
Funtzionamendu gastuak	16.247	(4.585)	11.662	11.954
Erak. emateko diru-lag. eta egin beharreko transf.	160	(20)	140	121
GASTUAK GUZTIRA	24.738	(4.187)	20.551	20.764
SARRERAK				
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	-	-	-	121
Zerga sarrerak	3.842	-	3.842	3.816
Transferentziak eta ustiap. diru-laguntzak	20.892	(4.187)	16.705	11.970
Finantza sarrerak	4	-	4	-
Ordaintz. ktu. igoera eta kobratz. knt. jaitsiera garbi	-	-	-	2.089
Ustiapen jardueren eskudiruzko fluxu negatiboak	-	-	-	2.768
SARRERAK GUZTIRA	24.738	(4.187)	20.551	20.764

KAPITALAREN AURREKONTUA

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	Hasier. aurrek.	Aldat. aurrek.	Egungo aurrek.	Gauzat. aurrek.
INBERTSIOAK				
Ustiapen jardueren eskudiruzko fluxu negatiboak	-	-	-	2.768
Inb. ukiezin, material, ibilg. eta besteen igoera	14.008	7.002	21.010	19.452
Ibilgetu ukiezina	250	-	250	274
Ibilgetu materiala.....	13.758	7.002	20.760	19.178
Finantza inbertsioen igoera eta ondare baliabideen jaitsiera.....	-	-	-	20
Eskudiru edo baliokideen igoera garbia	-	-	-	4.256
INBERTSIOAK GUZTIRA	14.008	7.002	21.010	26.496
FINANTZAKETA				
Jasotzeko transferentziak, diru-lag., dohaintzak eta legatuak.....	14.008	7.002	21.010	24.614
Pasibo finantz. baliabideen igoera	-	-	-	1.882
FINANTZAKETA GUZTIRA	14.008	7.002	21.010	26.496



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ETORKIZUNeko KONPROMISOAK

KONTZEPTUA	Euroak milakotan							
	2017		2018		2019		GUZTIRA	
	Aurrek.	Gauzatua	Aurrek.	Gauzatua	Aurrek.	Gauzatua	Aurrek.	Gauzatua
Ibilgetu ukiezina	250	-	-	-	-	-	250	-
Ibilgetu materiala.....	10.469	9.510	2.900	19.264	2.900	-	16.269	28.774
Hornidurak	9.430	8.900	15.535	3.777	-	5.014	24.965	17.691
Kanpoko zerbitzuak.....	4.841	-	-	-	-	-	4.841	-
Eman beharreko diru-laguntzak..	140	-	-	-	-	-	140	-
GEROKO KONPROM. GUZTIRA	25.130	18.410	18.435	23.041	2.900	5.014	46.465	46.465



URA – URAREN EUSKAL AGENTZIAK 2016KO EKITALDIAN IZANDAKO FISKALIZAZIO-EMAITZEN GAINEKO ALEGAZIOAK

I. SARRERA

URA - Uraren Euskal Agentziaren 2016ko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko, txosten honetan, agentziak erreferentziazko gaiaren gainean egin nahi izan dituen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoan zentralizatu diren alegazioak eta justifikazioak aurkezten dira.

II. IRITZIA

II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

“Vitoria-Gasteizko Abetxukoko zubi zaharra birgaitzeko proiektu aldatuaren lanak, premiazkoak zirela-eta, 486.807 euroan esleitu dira publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez (SPKLTBren 170.e artikulua). Aitzitik, ez da premia hori justifikatu, eta organo eskudunak ez du dagokion adierazpena egin.”

ALEGAZIOA

“Abetxukoko zubi zaharra birgaitzeko proiektu aldatua” delakoaren lanak egikaritzean, hainbat intzidentzia egon ziren, eta ondorioz, jada hasitako obrak eten egin behar izan genituen, premiaz abiarazi behar ziren hainbat lan hasita zeuden arren. Horri dagokiola, jardueraren lizitazioa egiteko beharrezkoa den dokumentazioarekin batera, justifikazio-txostena idatzi zen, eta premiaz kontratatze behararen arrazoiak zerrendatzen ziren bertan¹.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

“Ibilgetu materialak” barne hartzen ditu EAEko ibai eta erreketako ibilguen eta ibarren ingurumena mantentzeko, kontserbatzeko, berreskuratzeko, leheneratzeko eta hobetzeko zerbitzuen fakturei dagozkien 24 milioi euro. Txosten hau idatzi zen unean, ez genuen zenbateko eta kontzeptu aktibagarriak zehazteko txosten teknikorik, eta gainerakoa ekitaldi bakoitzaren gastutzat erregistratu behar izan da. Halaber, ekitaldi bakoitzaren emaitzei egotzi behar zitzaizkien gastu horiek finantzatzen dituzten eta Egoera Balantzearen “ondare garbian” erregistratuta dauden diru-laguntzak.”

¹ SPKLTBren 170 d) artikulua Publikotasunik gabeko prozedura negoziatua baliatzeko bide ematen du premia larri batek, kontratazio atalarentzat ezin aurreikusgarriak eta berari lepora ezineko diren gertaeren ondorioz, kontratua berehala egikaritzea eskatzen duenean, zeina ezin lor daitekeen 112. artikuluan araututako premiazko izapidea baliatuta; ez da, baina, halakorik justifikatu.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Uraren Euskal Legeari buruzko 1/2006 Legearen ekarpen berritzaileetako bat izan zen atal honetan aipatutako lanak “Obra Hidraulikoaren” definizioaren eta kontzeptuaren barruan sartu zirela.

Lege horren 2.31. artikulua honela definitzen du obra hidraulikoa²:

- “Obra hidraulikoa: halakotzat hartzen dira ur-masak, horien ingurua eta horiei lotuta dauden ekosistemak lehengoratzeko eta horien guztien egoera ekologiko ona lortzeko egindako lanak; ura hartu, atera, gatzgabetu, gordeta eduki, arautu, bideratu, kontrolatu eta aprobetxatzeko egindako eraikuntzak nahiz erabilitako uren saneamendurako, urok arazteko, tratatzeko eta berriz erabiltzeko moduan uzteko egindakoak (ondasun higiezinak); akuiferoak modu artifizialean berriz betetzeko egindako lanak, ibai-ibilguetako lanak, ur-lasterrak egokitzeko egindakoak eta uraldietatik babesteko egindakoak; eta, horiekin batera, obra hidraulikotzat hartzen dira uraren jabari publikoa babesteko beharrezkoak diren lanak ere.”

Zenbait kasutan, inbertsioarekin eraikinak edo elementu “gogorrak” edo higiezinak altxatzen dira; baina, beste zenbait kasutan, inbertsioa ertzen morfologian esku hartzean, betegarri artifizialak ezabatzean, zuhaitz-elementu desegokiak erauztean, edo, ostera, ibarra birmoldatu eta teknika bigunekin neutralizatzean eta tokiko landare-elementu egokiak ezartzean datza. Kasu orotan, tradizioz inbertsionat hartzen diren obra gogor klasikoekin lortu nahi diren helburu berdinak lortzea da xedea, eta obra suabeago eta naturalago horiek iraganean “obra hidrauliko klasikotzat” hartzen zirenak adina obra eta inbertsio dira.

Horrenbestez, Agentziaren hastapenetatik eta egindako ikuskapen guztietan, ez da inoiz jarduera horien izaera zalantzan jarri eta inbertsionat hartu dira beti.

III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

III.1 KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK

“2016ko abenduaren 31n, “jadaneko ibilgetuaren” eta “diru-laguntzen, dohaintzen eta legatuaren” kontuek URAk udal batentzat egindako obrak jasotzen zituzten, 1,5 milioi euroko zenbatekoan, eta ekitaldiko gastu eta diru-sarreretan erregistratu behar ziren.”

² 1/2006 Legearen beraren 2. artikulua adierazten du obra hidraulikoaren definizioa Lege horren ondorioetarako dela. Aktibazitateko kopuruak saneamendu eta garbiketako zerbitzu-kontratuari dagozkie, segidako traktuko modura definituak eta kontratu berriak egin arte luzatzen direnak; hori ez dator bat kontularitzako ondorioetarako aktibagarri den inbertsio bat egitearekin, 33 urtetan amortizagarria. Nahiz egia den gauzatutako jardueraren bat aktibagarritzat jo daitekeela, ez dugu horien balorazio bereizirik izan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

2016ko abenduaren 31n, “Donostiako Martutene auzoa Urumea ibaiaren uholdeen kontra babesteko proiektu aldatua” ez zegoen amaituta oraindik, eta, izan ere, 2017ko urtean zehar egikaritzen jarraitu da. URAREN obra guztietan, honako irizpide hau aplikatzen da: behin zuzendari nagusiak kontratuaren amaierako ziurtagiria onartzeko ebazpena sinatzen duenean, obraren guztizko zenbatekoa ibilgetu materialean aktibatzen da, eta dagokion amortizazioa burutzen da. Udalari entregatzen zaion obraren zatia “Beste erakunde batzuek kudeatutako ondasunen” eta “diru-laguntzen, dohaintzen eta legatuen” kontuetan sartzen da, dagokion aktaren bidez entrega egin ondoren. Beraz, 2016ko abenduaren 31n, ez zegokion inongo kontabilitate-mugimendurik egitea, obra ez zegoelako amaituta eta entregatuta.

III.2 LANGILEAK

“Aldi baterako bederatziz langileren kontratazioa aztertu da, eta bosten kasuan ez dago ezohiko baldintzak edota premiazko behar atzeraezinak justifikatzeko dokumentaziorik (2016ko Estatu Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 29ko 48/2015 Legearen Hamabosgarren xedapen gehigarria).”

ALEGAZIOA

Aztertutako langile-kontratazio guztiak erabat justifikatutako kontratazioak dira, lanpostu horiek une horretara arte beteta zeudelako eta arrazoi desberdinengatik hutsik geratu zirelako: 2 amatasun-baimen, aldi batera ezintasunaren ondoriozko baja bat, eszedentzia bat, eta, azkenik, lanpostuan zegoen pertsona Agentzia utzi izana.

“2016an, URAk errelebo-kontratua sinatu zuen ordezkapen-kontratu bidez beste zuzkidura batean funtzio berdinak betetzen zituen pertsona batekin. Halaber, bi lanpostu huts bete dira ordezkapenak egiteko kontratatatu ziren bi pertsonarekin, pertsona horiek behin-behineko hornikuntzarako barne-deialdietan parte hartu ondoren. Hiru langile horiek EAEko eta haren Organismo Autonomoetako Herri Administrazioaren lanpo-poltsetatik kontratatatu ziren, EJren Funtzio Publikoko Zuzendaritzak hala eskatuta eta kontratazioaren baldintzak eta/edo gutxi gorabeherako iraupena adierazita. Horrenbestez, Funtzio Publikoko Zuzendaritzari eskaera berria egin behar zitzaion hiru izendapenak egiteko.”

ALEGAZIOA

Kontuen Euskal Epaitegiak txostena idatzi zuen, lanpostu hutsak bete arte aurretiaz Eusko Jaurlaritzaren lan-poltsetatik kontratatatu ziren pertsonekin aldi baterako bitarteko kontratuak formalizatzeari buruz, eta, horri dagokiola adierazi behar da:

Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 8.2. eta 8.4. artikuluen arabera, Uraren Euskal Agentziaren zerbitzura kontratatutako langileak lan-zuzenbidearen arabera arautzen



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

dira, eta Uraren Euskal Agentziaren esku dago lanpostuak betetzeko araubidea erabakitzea, baldintzak eta sarrera-proben ezaugarriak zehaztea eta lanpostuak betetzeko eta laneko sustapeneko prozedurak deitzea, kudeatzea eta ebaztea, betiere merezimenduko eta gaitasuneko printzipioekin bat.

Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzen dituen martxoaren 10eko 25/2015 Dekretuaren 14.4. artikulua ezartzen du lan-kontratudun langileentzat gordetako lanpostuak Agentziaren Zuzendaritza Nagusiaren deialdi publiko bidez hornituko direla, eta lanpostu publikoak lortzeko prozesuak arautzen dituzten printzipioak zorrozki beteko direla.

Aipatutako Dekretuaren 7.2.m) artikulua xedatzen du Zuzendaritza Nagusiari dagokiola Agentziaren lanpostuak betetzeko prozedurak deitzea eta ebaztea.

Langile horiek Eusko Jaurlaritzaren lan-poltsetatik kontratatu ziren, hain zuzen ere, eta, beraz, iritz dakiok lanpostu publikoak lortzeko merezimenduko eta gaitasuneko printzipioak bete zirela. Gero, Uraren Euskal Agentziaren langile gisa zerbitzu aktiboa ematen zutenez, aipatutako langileek lan-kontratudun langileen aldi baterako mugikortasun-prozeduretan parte hartu zuten, haiek lanean zeuden bitartean Agentzian deialdia egin baitzen hutsik zeuden lanpostuak aldi batez hornitzeko, lanpostu horiek arauen arabera bete arte. Agentziaren Zuzendaritza Nagusiak deialdi publiko bidez onartu zituen prozedura horiek, Estatutuaren ezartzen denarekin bat, eta, prozedura horien bitartez, aipatutako langileek hutsik zeuden lanpostuak bete zituzten bitarteko lan-kontratuekin, lanpostu horiek arauen arabera bete arte.

Barne-mugikortasunerako prozedura horiek Uren Legearen eta Uraren Euskal Agentziaren Estatutuaren arabera burutu dira, eta, horrenbestez, irizten zaio ez zaiola Funtzio Publikoko Zuzendaritzari eskaera berria egin behar, Epaitegiak bere txostenean adierazten duen bezala. Izan ere, aldi baterako hornikuntza horiek horretarako ezarritako prozeduraren emaitza izan dira, eta lanpostu publikoak lortzeko printzipioak zorrozki bete dira.

III.3 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

“Hiru kontratu esleitu dira (1., 2. eta 3. espedienteak) 1,2 milioi euroko unitateko kostuarekin, eta baldintza-orrietan eskatutako eta ordaindutako bermea esleipen-zenbatekoaren arabera kalkulatu da, lizitazio-zenbatekoaren arabera kalkulatu beharrean (SPKLTBren 95. artikulua).”

ALEGAZIOA

1., 2. eta 3. espedienteetan, Eusko Jaurlaritzak ezarritako irizpidea aplikatu da, eta, hala, baldintza-orrietan eskatu zen eta ordaindu den bermea esleipen-prezioaren % 5 izan da eta ez lizitazio-prezioarena.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

“EAEko ibai eta erreken eta itsasbazterren ibilguen eta ertzen ingurumena mantentzeko, leheneratzeko eta hobetzeko kontratua (5. espedientea) 4,7 milioi euroan esleitu da, eta kalkulaturako balioak ez du baldintza-orrietan aurreikusten den aldaketa posibleen % 10 hori barne hartzen (SPKLTBren 88. artikulua).”

ALEGAZIOA


EAEko ibai eta erreken eta itsasbazterren ibilguen eta ertzen ingurumena mantentzeko, leheneratzeko eta hobetzeko kontratuan (5. espedientea), kalkulaturako balioak aurreikusitako luzapenaren balioa barne hartzen du soilik. Dena den, baldintza teknikoan orrietan aipaturako aldaketak ez dira kontratu-aldaketak, ez diotelako hasieran kontratatutakoari prestazio osagarrikerik erantzen, ezta kontratuaren xedea zabaltzen ere, kontratua prestatzeko dokumentazioan aurreikusita ez zeuden helburu berriak betetzearren. Halaber, ez dute modu independentean erabili edo aprobetxatu ahalko litzatekeen prestaziorik gehitzen ere. Horregatik, ez ziren kalkulaturako balioan barne hartu.

Kontratua egikaritu bitartean egin litezkeen hobekuntzen atalean jaso ziren, eta, beraz, ez dituzte eskatutako prestazioaren izaera eta balioa aldatzen, prestazioaren eraginkortasuna handitu baizik. Erabilitako kontzeptuan egindako akats bat da.

“Hiru kontratu esleitu ziren (1., 5. eta 9. espedienteak) 5,1 milioi euroan. Esleipen-irizpideak aplikatzeko balio-judizioa egin behar da, eta esleipen-irizpideen balorazio-txostenean kontratu horiei emandako puntuazioak ez daude behar beste arrazoituta.”

ALEGAZIOA

1. eta 5. espedienteen kasuan, irizten zaio eskaintza teknikoei buruz egindako balorazio-txostenetatik informazio egokia eta nahikoa atera daitekeela esleitutako puntuazioak justifikatzeko.





ABREVIATURAS

BOE	Boletín Oficial del Estado.
CABB	Consortio de Aguas de Bilbao Bizkaia.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
DFA	Diputación Foral de Álava.
D 233/2007	Decreto 233/2007, de 18 de diciembre, por el que se regula el inicio de actividades de la Uraren Euskal Agentzia/Agencia Vasca del Agua y las condiciones de adscripción de los medios personales y materiales de la Administración de la CAPV a la misma.
EJIE	Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea/Sociedad Informática del GV, SA.
GV	Gobierno Vasco.
Ley 1/2006	Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.
Ley 30/1992	Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.
PNSP	Procedimiento negociado sin publicidad.
RGLCAP	Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
TRAGSATEC	Tecnologías y Servicios Agrarios, SA.
TRLCSP	Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TRLPOHGPV	Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988 y en el Plan de trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha fiscalizado las Cuentas Anuales del ejercicio 2016 de Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua (en adelante URA).

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legales: revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, personal y adquisición de bienes y servicios.
- Contables: conformidad de las cuentas anuales con los principios contables que le resulten de aplicación. URA se encuentra auditada, por lo que nuestro trabajo ha consistido en una revisión de los papeles de trabajo de los auditores, realizando, en su caso las pruebas complementarias que hemos considerado necesarias.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis de la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe del informe denominado “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

